

Kultura

Bilboko Musika-Música jaialdian joko du Durangoko
Bartolome Ertzillako gazteen orkestrak > 13



Eskola ez dutela botako ziurtatu du Atxondoko Udalak

Rosa Elizburu alkateak adierazi du eraikina eraitsi behar dela agintzen duen
epaiak berak argitzen duela udalak zer egin dezakeen hori eragozteko

2011n eskola berriaren eraikuntzaren inguruan hamaika auzokidek epaitegietara eraman zuten udala, eraikinaren kokapena ez zela arau subsidiarioetara egokitzen argudiatuta. 2013an Bizkaiko Administrazioarako Auzien Epaitegiak udalari eman zion arrazoiz, baina 2015ean EAEko Auzitegi Nagusiak auzokideen aldeko epaia eman du. Azken epaiak eraikina eraistea agintzen duen arren, hori saihesteko egin beharreko tramitea ere aipatzen du. Rosa Elizburu alkateak eraikina ez dutela botako ziurtatu du. >2

Osasunarekiko kontzientziak eragindako jateko modu berriak

Orain urte batzuk Durangaldeko dendetan tofua, seitana, kinoa eta artatxikia aurkitzea zaila zen. Gaur egun, aldiz, elikatze modu berriei erantzun guran, beste kultura batzuetan ohikoak diren produktuak hainbat dendatan aurkitu daitezke. > 4



Lehior Elorriaga



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofiziala de Idiomas

MATRIKULA EPEA:

Otsailaren 23ko 10:00etatik
martxoaren 5eko 13:00ak arte

MATRIKULA LIBREA 2014-15
**EUSKARA (CI izan ezik), FRANTSESA,
INGELES, ALEMANA**

MATRIKULA ON-LINE BURUTUKO DA:
Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik
egin ahal izango dute, honako web orriaren bidez:

www.eoidurango.net



Durango > 3

Durangoko kaleei emakume
izena ipiniko diote aurrerantzean

Durango > 3

Gastañazatorreren nazi
mozorroak polemika sortu du

Zornotza > 2

Astepe auzoko azpiegiturak
hobetzeko prozesua hasi dute

Mallabia > 6

Mecanica Mallabin 47 langile
kaleratu nahi dituztela dio LABek

Durangoko kaleei emakume izena ipiniko diete aurrerantzean

Durangon ez dago emakume izena duen kalerik, Santa Ana eta Andra Maria salbu



Frai Juan Zumarraga, gizon izena duen Durangoko kaleetako bat.

DURANGO Markel Onaindia Durangon ez dago emakume izena duen kalerik, Santa Ana eta Andra Maria salbu. Horretaz konturatu ziren Udal Berdintasun Kontseiluko kideak, kaleizendegia errepasatzen hasi zirenean: “Emakumeen presentzia urri horrek begi-bistan uzten ditu emakumeok pairatzen dugun diskriminazio historikoa eta gure lanari eman zaion aitor-

pen eskasa”. Gainera, izen bakarrik birjinarena eta santuaren izanda, kontseilukoek uste dute ez dela emakumeen askotariko ekarpena islatzen. Ondorioz, parekidetasunari begira proposamen bat aurkeztu zuten udalbatzarrean, eta aho batez onartu zuten. Aurrerantzean izendatuko diren kale, plaza, parke eta eraikinei emakume izena ipiniko diete. “Euskal Herriaren

historian, emakumeek egin dituzten ekarpen garrantzitsuak” agerian jarri gura dituzte.

Mozioaren arabera, emakumez osatutako zerrenda bat egiteko prozesu bat hasiko dute. Ez du hilabete bitik gora iraungo, eta publikoki emango dute bere berri. Gainera, emakume eta gizon izena duten kaleen kopurua parekatzeko konpromisoa hartu du udalak.

Udalerri Jasangarriaren Saria lortu du Durangok

40 udalek parte hartu dute borondatezko analisian



Aitziber Irigoras alkatea, saria jasotzeko unean.

DURANGO M.O. Durango izan zen 2014ko udalerri jasangarriena. Hori da Udalsarea 21 erakundeak emandako epaia, Durangoko tokiko agenda aztertu eta gero. Guztira 40 udalek parte hartu dute borondatezko analisian, eta, Udalsarea 21eko tenikarien ustez, Durangok garatu du ingurumenagaz lotutako ekintza agenda onena. Sari horretaz gainera, beste bi aipamen ere jaso ditu Durangok. Epaimahaikideen arabera, “partaidetza publikoa eta gardentasuna sustatzeaga-

tik, eta jasangarritasun politikak ezartzeko garaian izandako ikuspegi osoagatik eta lidergoagatik” eman dituzte aipamen bereziak. Sari banaketa ekitaldia joan zen barikuan egin zuten, Durangoko San Agustin kulturgunean.

Durango 2006tik dabil Tokiko Agenda 21 garatzen. Udaleko ordezkariak prentsa ohar bidez esan dutenez, “urteotan abangoardia izan da klima aldaketan, airearen kalitatean, mugikortasunean, hirigintzan eta hondakinen kudeaketan”.

Tabirako biribilgunearen inguruko bilera eskaera Aldundiari

DURANGO M.O.

Tabirako biribilgunean egingo den obra dela-eta, udalak batzarra eskatu dio Aldundiari. PSE-EEK aurkeztu zuen mozioa martitzeneko udalbatzarrean, eta, EAJk izan ezik, alderdi guztiek babestu zuten. Mozioaren kritika nagusia Gasteiz bidea kaleko irteeragaz lotutakoa da. Izan ere, Aldundiak lizitatu duen proiektuan, biribilgunek ez du irteera hori edukiko. Alde Zaharrerantz kale horretatik sartu gura duenak Intxaurrendoko biribilguneraino joan beharko du, eta bertan buelta eman. Aldundiaren arabera, segurtasunagatik egin dute hori. Baina sozialistak ez daude ados, zortzi zebra bide pasa beharko direnez, oinezkoen segurtasuna arriskuan ipini ahal dela uste dutelako. Udal teknikariak ere ez daudela ados gaineratu dute.

Bestalde, proiektua udala informatu barik egin izana kritikatu dute. Horregatik, “lehenbailehen” batzarrean eta etorkizuneko proiektuetan ere komunikazioa egotea exijitu dute.

Igerilekuetako langileak mobilizazioekin aurrera

Igerilekuetako beharginak elkarretaratzean bildu ziren atzo; LABek langileak berriz hartzeko eskatu du

DURANGO M.O.

LAB sindikatuak oharra bidali du Durangoko Udalagaz eta Dendak Bai elkarteagaz Landakoko igerilekuetako tabernaren itxieraren inguruan izandako batzarrak baloratzeko: “Trudipena dugu inork ez duela bere gain hartuko lanpostuen galera eta sortu den egoera”. Eguen eguerdian elkarretaratzea egin zuten igerilekuko tabernako langileek, udaletxe aurrean. “Ematen du ez bata ez besteak ez dakitela ezer”. Ohar bidez azaldu duenez, “Dendak Bai elkarteak diote eurek ezin dutela ezer egin”, eta udaleko ordezkariak “berba onak baino ez dizkigute eskaini”. Lanpostu horiek, azpikontratu beharrean, kontratu zuzenagaz kudeatzeko eskatu du LAB sindikatuak, baina udalak martxoan dauka asmoa tabernaren esleipen lehiaketa kaleratzeko. LABek eskatu du “benetako prozesu publiko bat martxan ipini arte” langileak berriz hartu ditzatela.

Dendak Baiko arduradunek ohar bidez azaldu dutenez, 2013an sinatu zuten akordioa udalagaz, eta taberna kudeatzeko enpresa bat sortu zuten. Euren arabera, Dendak Baik gizarte-bazterketa egoeran dau den beharginekin lan egin izan du, eta udaleko enplegu planetan ere parte hartu du. Ondorioz, udalak eurak kontratatu izana bidezkoa izan zela uste dute. Elkarrearen gerenteari eman zioten enpresa hori gestionatzeko ardura. 2014an jakin ei zuten enpresaren benetako defizita zein zen, eta udalagaz hartu-emanetan ipini ziren egoera aztertu, eta bideratzen saiatzeko. Adierazi dutenez, beharginen ordaindu gura zizkieten zor zaizkien soldatak, baina Gizarte Segurantzak kontuak bahitu zizkien otsail hasieran. Bestalde, taberna martxoaren 15era arte zabalik eduki gura zuten, udalagaz horrela hitzartu zutelako, baina, beharginen ezin zientenez ordaindu, lehenago ixtea erabaki dute.

Gastañazatorrek polemika sortu du nazi jantzita

PPko zinegotziak nazi mozorroa jantzi du Tenerifen

DURANGO M.O.

Juan Jose Gastañazatorre PPko zinegotziak Tenerifeko inauterietan parte hartzeko ohitura dauka, eta aurten jeneral naziazen mozorroa jantzi du. *El Día* egunkariak zinegotziaren inguruko erreportajea egin zuen, eta, hori zabaltzean, polemika piztu zen. Gastañazatorreraren arabera, Tenerifeko kuadrilla bat 40 urtez mozorrotu da horrela; urtero gonbidatu bat izaten du, eta aurten berari eskaini diote. Baina gertatutakoaren aurrean bertsio bi eman ditu zinegotziak. Lehenengo adierazi zuen ez zuela ulertzen polemikaren arrazoia, eta kritika egin duenak ez duela Tene-

rifeko inauteria ezagutzen esan zuen: “Nazien SS indarrekoak barik ZZ-koak ginen. Arma horren kontura barre egin genuen”. Asteak aurrera egin ahala, oster, barkamena eskatu du: “Sortu ahal izan dudana mina sentitzen dut. Nire asmoa ez zen inor mintzea, eta gutxiago nazismoaren biktimak”.

Gastañazatorreraren mozorroagaz haserre agertu da Durango 1936 elkartea. “Zelan ulertu behar dugu durangarrok dibertsio mota hau, faxistek eta naziek gure herria txikitzearen eta 400 lagun hiltzearen inork ez badu barkamenik eskatu edo erantzukizunik azaldu?”.



Juan Jose Gastañazatorre, Tenerifen, nazi jantzita. *‘El Día’*

Martxoaren 8aren harira, egitaraua antolatu dute lehenengoz

MAÑARIA M.O.

Lehenengo biderrez antolatu dute egitaraua Mañarian martxoaren 8rako, Emakumearen Nazioarteko Egunerako. Aina-ara Areitio zinegotziak azaldu duenez, udalak egun horretarako ekitaldiak prestatzea pentsatu du, baina emakumeekin eurekin aztertu gura izan du zer egin ahal den eta zer ez. Horrela, herriko andreok antolatu dute egitaraua.

Zumba maratoniagaz hasiko dituzte ekitaldiak, 12:00etan. Hainbat emakume dabilta zumba ikastaroan, eta hortik sortu da ideia. Gero, poteoa egingo dute, eta, ostean, Ursula Donea elkartearen bazkalduko dute –astelehena da izena emateko azken eguna–. “Andre guztiak animatzea espero dugu”, esan du Areitio.

Burdinazko egitura sendoa Etxanorako bidea konpontzeko

IZURTZA Joseba Derteano Azken egunetan eguraldiak ez du batere lagundu, baina apurka aurreratzen dabilta Arbizolea industriaguneko urbanizazio lanak. Etxano auzorako bidean –Arbere enpresaren ondoan– izandako lur-jausia garbitzea eta konpontzea izan da lanetako bat. Langileek gune horretan burdinazko egitura bat finkatu dute; goitik behera zutabe bi, eta beste bat gainaldean, zeharka. Ondoren, egitura hormigoiagaz estali dute, eta gainean baranda bat gehitu diote. Bestalde, Etxanorako zubiaren ondoan sei metroko harrizko horma kentzeko lanak ere amaitu dituzte. Urbanizazio lanak amaitu ostean, bidegorriagaz hasiko dira.

“Elikatzeko moduak gero eta gehiago arduratzen gaitu”

Osasunarekiko kontzientziak jateko modu berriak sortu ditu Durangaldean ere



Maite Manzidor eta Marta Rodriguez, Izar Bide.

DURANGALDEA M. Onaindia Norbere burua zaintzeko ideiak eta osasunarekiko kontzientziak jateko modu berriak sortu ditu, eta gero eta gehiago zabaltzen dabilta gizartean. Ondorioz, han eta hemen sortzen dabilta eskari horri erantzuteko denda edo elkarteak, eta supermerkatuetan ere gero eta eskaintza zabalagoa daukate. Duela sei urtetik produktu ekologikoak saltzen dituen Durangoko Izar Bide denda da joera horren adibide esanguratsuetako bat; Zornotzan beste denda bat ere zabaldu dute, eta Internet bidez ere saltzen dute. Urteotan kontsumoa eta jakin-mina hazi egin direla baieztatu du Marta Rodriguez dendaren jabeak. “Elikatzeko moduak gero eta gehiago arduratzen gaitu”.

Rodriguezek kontatu duenez, jende asko umea eduki ostean hasten da produktu ekologikoak kontsumitzen. Hain zuzen ere, ama izan eta gero kontzientzia areagotu zitzaion Maite Manzidor bezeroari. “Lehendik hasita nengoen. Baina umea eduki ondoren, onena ematen ahalegindu nintzen, eta nik argi daukat onena ekologikoa dela”. Egutero egiten du erosketak.

Makrobiotikaren agerpena Bestalde, hilean behin, Fran Goikoa nutrizionistaren bisita izaten dute Izar Bide. Besteak beste, azken urteetan agertu den fenomeno bat ere lantzen du: makrobiotika. “Onena dela uste dut, edozein arazoren aurrean lagundu diezaguke”. Baina gartzeko zaila dela ohartarazi du. Goikoak dio Durangaldea dela makrobiotika gehien lantzen den inguruetako bat.



Carlos Casal terapeuta.



Iñaki Soloeta Marisatsako kidea.

Carlos Casal terapeuta eta *stretching* –gorputzaren jarraiek lantzeko ariketa– irakaslea da makrobiotikaren irizpideak jarraitzen dituenetako bat. Bere elikaduraren oinarri batzuk azaldu ditu: “Gehien behar duguna karbohidratoak dira, oreka fisikoa eta emozionala edukitzeko. Horrela, elikaduraren %50etik gora osatzen dute ale integralek eta zerealek: arroza, artatxikia, kinoa, garagarra, oloa,

espelta...”. Gizartean proteina lar kontsumitzen dela dio, eta animalienak toxikoak direla. Horregatik, proteina begetalak hartzen ditu. Bestalde, mineralak eta bitaminak egositako fruta eta barazkietatik hartzen ditu batez ere. Algak ere badaude makrobiotikoen errezetetan, nutrizio iturri handiak direlako. Filosofiak inguruko produktuak jatea gomendatzen die, baina beste kultura batzuetatik ere ekartzen dituzte, batez ere, Japoniatik, handik datorrelako makrobiotika. Azukrea eta estimulatuak ez dituzte jaten.

Makrobiotika oreka batzuetako filosofia oso bat dela dio Casalek, eta gorputz ariketak ere barneratu ditu: “Ingurumenarekiko eta gizartearekiko errespetua lantzen da”.

Marisatsan, %20 gora

Ideologia ekologistatik sortu zen Marisatsa elkarte orain hamasei urte, eta jendearen kontzientzia eragile izan da. Produktu ekologikoak kontsumitzen dituzten elkarteko bazkidea da Iñaki Soloeta, eta osasunaz harago, ingurumenaz, tokiko produkzioaz eta bidezko merkataritzaz kezkatzen direla esan du. Eskualdeko ekoizleen jakiak dituzte, adibidez, Durangoko Alluitz kaleko lokalean. 282 bazkide dira, eta, azken urteetan, %20ko hazkundea eduki du urtero bazkide kopuruan.

“Nutrizionistok zereal integralen kontsumoa gomendatzen dugu”

Nerea Sarriugarte dietista eta nutrizionista Durangoko Hiru zentroan eskaintzen du zerbitzua. Ez da lar fio makrobiotikaz, eta egunean zehar denetik jan ahal dela uste du.

Igarri duzu elikatzeko erak gehiago arduratzen duela? Bai. Baina, askok ondo egiten dutela uste duten arren, errealitatea bestelakoa da. Azken inkesten arabera, Espainia mailan %37,8k soilik kontsumitzen du fruta egutero, eta %43k

barazkiak. Kontsumo urria da, egunean birritan fruta eta hiru-tan barazkiak jan behar direla kontuan hartuz gero.

Zereal integralak eta okelaren alternatibak modan daude. Zerealen fintze prozesuan ematen den galera nutribioatik, dietista-nutrizionistok zereal integralen kontsumoa gomendatzen dugu. Bestalde, dieta begetariano bat egin ez arren, ondo legoke noizbehinka haragiaren ordezkari begetalak



hartzea, tofuagaz, seitanagaz edota soja testurizatuagaz.

Baina norbere kabuz okela kentzeak arriskua ekar dezake, ezta?

Bai. Inolako ezagutza barik eginez gero, arriskutsua izan daiteke.

hitz liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT MARIA ETA BEOK Miguel Gallardo (2014)	UME ETA GAZTEENTZAT NAFARROAKO HISTORIA Rafael Ramos (2014)	MUSIKA BARNEKO AHOTSAREN BILA Fly Shit (2014)

URIEN liburudenda

ALOKATZEN DA
JUBILAZIOAGATIK

Prentsa · Aldizkariak · Fotokopiak
· Fax zerbitzua · Telefono txartelak ·
Opariak · Jolasak · Eskola eta bulego gaiak
· Autobus bonoak · Gozokiak

Informazio gehiago, 944 669 360 telefonoan
edo Bixente Kapanaga, 10 lurretan

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Ez dago ezinezkorik



FORD FOCUS BERRIA

➤ **Lagunduriko aparkatze sistema**

Ikusi ere egiten ez diren lekuetan aparkatu daiteke? Ford Focus berriarekin posible da. Irudikatu ezinezko tokiak aurkitzen ditu, eta bertan aparkatzen du. Urrutira joaten lagunduko dizuten hainbat aukera ditu Ford Focus berriak; hau horietako bat besterik ez da.

ford.es

12.900€ edo 120€ hilean.

Sarrera 3.165€. Azken kuota 7.636€. 37 hilabete.



ford.es

FORDKONDIA

Otaola etorb. EIBAR
Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santa Maña kalea, 19 IURRETA
Tel.: 946 815 135

Ford Focus gama, batez besteko kontsumo konbinatua 4,2-tik 6,8 litro 100 kilometroko bitartera. CO2 emisioak 105etik 159 g/km-ra. EcoBoost motorrak %20raino hobetzen du kontsumoa ohiko gasolina motor baten aldean. Ford Focus Trend 1.0 EcoBoost Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW), 5 ate atzeko kristal-jasogailuekin eta lainotako argiekin. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZa, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit Classic' kanpainaren bitartez finantzatzearen; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Amaierako prezio 12.990,31€. Sarrera: 3.165€. Azken kuota: 7.636€. 37 hilabete. Zabaltze kuota: 334,06€. TIN %7,90. TAE %9,73. Epeka prezio osoa 15.455,31€. Gobernuaren PIVE planaren aportazioari lotuta. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modelook ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin.

Independentziarako ideia dakar EH Bilduk

Euskal Bidea aurkeztuko du EH Bilduk eguaztenean

DURANGALDEA M. Onaindia EH Bildu koalizioak Euskal Bidea aurkeztuko du datorren eguaztenean, martxoaren 4an, Plateruenean. 19:00etan hasiko den berbaldean legebiltzarkide bik parte hartuko dute: Maribi Ugarteburuk eta Durangoko zinegotzi ere baden Dani Maeztuk. EH Bilduk independentzia lortzeko daukan ideia eta proposamena azalduko dute bertan.

Maezturen esanetan, “justizia sozialean oinarrituko den estatu bat eratzeko” garatu gura dute Euskal Bidea. Baina pro-

zesu hori ez dute EH Bilduko kargudunek bakarrik landu gura, eta herritarren partaidetza izango ei da euren irizpideetako bat. “Ezinbestekoa da jendea estatuaren beharraz jabetzea”, adierazi du Maeztuk. Horregaz lotuta, berbaldearen zergatia azaldu du zinegotziak: “Herritarrek eguaztenean entzutea gura dugu, gero eragile aktibo izan daitezen eratze prozesu horretan”.

Hiru fasetan

Euskal estatua sortzeko propo-



EH Bilduk Euskal Bidea aurkezteko eginiko ekitaldi nazionala.

samen horretan, abiapuntutzat gaur egungo banaketa administratiboa hartu du kontuan koalizioak, eta hiru fase zehaztu ditu. Lehenengoan, eremu bakoitzeko herritarrek erabakitze

eskubidea gauzatzeko gaitasuna hartu beharko lukete. Bigarrenean, gehiengo sozial eta politikoa sustatzen eta eraikitzen hasiko lirake. Hirugarrenean, autodeterminazioa egongo litza-

teke. Azken fase horretan, Frantziako eta Espainiako estatuekin eduki beharreko harremana zehaztu baino lehen, hegoaldeko erkidego bien arteko batasuna lortu gura du EH Bilduk.

Udalekuean izena emateko deia egin du Kimuak taldeak

DURANGALDEA M.O.

Kimuak aisialdi taldea hasi da aurtengo udalekuak prestatzen, eta dagoeneko eman du bere eskaintzaren berri. 190 gazterentzako lekua edukiko dute, eta interesdunei izena emateko deia egin die. Martxoaren 9tik 13ra bitartean, Iurretako Goiuria kulturagunean egingo dute inskripzioa, eta, lekurik geratuz gero, martxoaren 16tik aurrera telefonoz jasoko dituzte datuak. Iaz hasieratik telefonoz egin zuten, baina “kaotikoa” egin zitzaizela diote Kimuakekoek, ezin izan ziotelako jende guztiari aldi berean kasu egin. Kopuru bat ipintzea beharrezko dutela diote, “kalitatezko udaleku batzuk eskaini ahal izateko”.

Udaleku finkoa Urnietan egingo dute, 2005tik 2008ra jaiotakoentzat, eta ibiltaria Urbasa eta Aulesti artean, 1998tik 2000ra jaiotakoentzat. Ibiltari txiki bi egingo dituzte 2001etik 2004ra jaiotakoentzat. 40 begiralek jardungo dute, guztira.

Bihar Donostiara joateko deialdia egin du Gukak

DURANGALDEA M.Z./M.O.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak deituta, manifestazioa egingo dute bihar, Donostian, *Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara* lelopean, eta bertara joateko deia egin du Guka euskalgintza arloko bilguneak (Autobusa, Ibaizabal ikastolan, 16:15ean).

Espainiako eta Frantziako estatuetakordek Euskal Herriko erakunde hainbat

erabaki atzera bota izana salatu dute protestagaz. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko zenbait udalek aktak euskaraz idazteagatik helegitea jaso dute; Gipuzkoako Aldundiaren euskara dekretua auzitara eraman dute; Uztaritzeko Udalak euskara ofizial izendatu izana balio barik utzi dute; eta Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko diru-laguntzekin ere gauza bera gertatu da.

Erriberako olio salgai, Errigoraren kanpaina berrian

DURANGALDEA A. Ugalde

Gabon aurreko kanpainaren ostean, Errigorak *Nafar hegoaldeko uzta, eskutik eskura* kanpaina abiatu du. Kontsumo arduratsua sustatzeko eta Erriberako nekazariak babesteko ekimenak olio bidioiak ipini ditu kontsumitzaileen eskura. Martxoaren 4ra arte, Durangaldean bost herritan dago eskariak egiteko aukera: Durangon,

Plateruenean; Elorrion, euskaltegian eta ikastolan; Iurretan, Montoste elkartean; Otxandion, Kementsu elkartean; eta Zornotzan, Ixerbekoa kiroldegian.

Errigorako arduradunek azaldu dutenez, “ekoizlearen jatorrizko salneurrian desbentsak betetzeko ideiaz” dator oliba olio birjina oinarri duen kanpaina. Bost litroko bidioiak dira salgai daudenak, Cascanteko La Casa del Aceite olio errotakoak eta Castillo de Ablitas kooperatibakoak. Gainera, olio konbentzionala eta ekologikoa eskatzeko aukera edukiko dute interesdunek.

Ume saharuiak bi hilez etxean izateko aukera eman du udalak

BERRIZ Martxel Zubia

Berrizko Udalak Sahararekiko elkartasuna erakutsi du beste behin, eta *Oporrak bakean* ekimena jarri du abian aurten ere. *Oporrak bakean* ekimenak ume saharuiak bi hilez etxean izateko aukera eskaintzen du. Bi hil horiek udan izaten dira; normalean, ekain amaieratik edo uztail hasieratik abuztu amaierara arte edo irail hasierara arte. Iaz hiru familia izan ziren euren etxeetan saharai bat hartu zutenak.

Udalak eskaintako aukera honetan aurten familia gehiagok parte hartzea espero dute. Interesa dutenek dagoeneko eman dezakete izena *Oporrak bakean* ekimenean, eta martxoaren 19ra arte izango dute horretarako aukera. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena eman nahi izanez gero, Berrizko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako 946 824 525 telefonora deitu edo *gizarte1@berriz.org* helbide elektronikora idatzi.

Mecanica Mallabin 47 langile kaleratu gura dituztela salatu du LABek

MALLABIA Jone Guenetxea

LAB sindikatuak jakinarazi duenez, Alfa taldeko Mecanica Mallabi enpresan erregulazio espediente bat aurkeztu dute 47 kaleratzegaz. Gaineratu duenez, momentu honetan 122 langilek osatutako enpresan kontsulta epean daude. Mari Eli Urriolabeitia LABeko ordezkariaren berbetan, “gure eskaera hasieratik izan da, kaleratzeak badaude, horiek traumatikoak ez izatea. Badaude euren borondatez joan gure duten langile batzuk”. Enpresaren erantzuna ezezkoa izan dela esan du Urriolabeitiak.

LABek Mecanica Mallabin izandako “kudeaketa txarra” salatu du, “bai ekoizpenean, bai antolaketan”. Sindikatuak uste du 47 langile kaleratzeak ez duela arazoa konpontuko.

Alfa taldea 2013an irten zen konkurtso egoeratik. “Ikusten dugu egoera txarrera doala”, dio LABek. “2012ko soldaten zorrak ordaindu gabe jarraitzen dute”.



PLATERUENA

Argazkia: Dena Flows

PLATERUENA

MARTXOA

2015 EGITARAUA

www.plateruena.net



02 **ASTELEHENA** **HAURRENTZAKO EKIMENA**
OLGETAN
Ekintza: ZINEA
17:00etan. DOAN



04 **EGUZTEINA** **KAFETERTULIA**
EUSKAL BIDEA (aurkezpena)
Maribi Ugarteburu eta Dani Maeztu
19:00etan. DOAN



05 **EGUNA** **BERTSO SAIOA**
BERTSO KORRIKA
UNAI ITURRIAGA / IGOR ELORTZA / MIREN AMURIZA /
MANU GOIOGANA / Gaij.: ENEKO ABASOLO "ABARKAS"
19:30etan. Sarrera: 3€



06 **BARIKUA** **MUSIKA KONTZERTUAK**
JOSEBA B. LENOIR DUO / OSSO
TUTAN COME ON
22:30etan. Sarrera: 8/10€



07 **ZARABUA** **MUSIKA KONTZERTUAK**
RAY FERNANDEZ
Artista gonbidatua: INES OSINAGA
22:30etan. Sarrera: 10€



09 **ASTELEHENA** **HAURRENTZAKO EKIMENA**
OLGETAN
Ekintza: SUKALDARITZA
17:00etan. DOAN



13 **BARIKUA** **MUSIKA FESTIBALA**
EUSKAL ASSAULT
19:00etatik aurrera
Sarrera: Bi eguneko bonoa 60€ // Egun bakoitzeko 35€



14 **ZARABUA** **MUSIKA FESTIBALA**
EUSKAL ASSAULT
19:00etatik aurrera
Sarrera: Bi eguneko bonoa 60€ // Egun bakoitzeko 35€



16 **ASTELEHENA** **HAURRENTZAKO EKIMENA**
OLGETAN
Ekintza: ARKITEKTURA FANTASTIKOA
17:00etan. DOAN



20 **BARIKUA** **MUSIKA KONTZERTUAK**
MURSEGO
PETTI
22:30. Sarrera: 8/10€



21 **ZARABUA** **MUSIKA KONTZERTUAK**
SHINOVA
THE MOCKERS
22:30etan. Sarrera: 8/10€



22 **DOMEKA** **DANTZALDI BILTARIA**
AIKO ERROMERIA
18:00etan. Sarrera: DOAN



23 **ASTELEHENA** **HAURRENTZAKO EKIMENA**
OLGETAN
Ekintza: ESPERIMENTSU TAILERRA
17:00etan. DOAN



23-27 **ZILARASTEA**
ERAKUSKETA DIGITALA
Euskal Herriko sortzaile eta kolektiboan sormen digitalak sarean
Egunero 11:00-13:00 / 16:30-19:00 **KANONIZATZA ERAGINTZA**



25 **EGUZTEINA** **ZILARASTEA**
K1 SAREAN: MAHAINGURU POSTMODERNOA
// OPEN SPACE
Kultura, komunikazioa eta gizarte eragiletza munduko gonbidatuak.
19:00etan. DOAN **KANONIZATZA ERAGINTZA**



26 **EGUNA** **KANTUZALFENTXOKOA**
KANTULAGUN
20:00etan.



27 **BARIKUA** **ZILARASTEA**
INPRENTATIK/TINTATIK
ORDENAGAILURA/BITERA
Paperezko liburuetatik liburu digitalera, liburu digitalatik paperezkora.
19:00etan. Sarrera: DOAN **KANONIZATZA ERAGINTZA**



30 **ASTELEHENA** **HAURRENTZAKO EKIMENA**
OLGETAN
JAIA
17:00etan. Sarrera: DOAN



Txintxaur aisialdi taldea sortu dute herriko dozena bat gaztek

Aisialdia euskaraz eskaini gura dute kideek, "herritik eta herriarentzat"



Irailean hasi ziren elkartzen, eta San Esteban egunean antolatu zuten lehenengo ekitaldia.

ZALDIBAR Itsaso Esteban Zaldibartarrek kudeaturiko aisialdi talde bat falta zelako kezkatuta, Txintxaur aisialdi taldea sortu dute dozena bat gaztek. Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz eskaini gura dizkiete herrikerideei, eta adierazi dute ilusioz gainezka daudela "herritik eta herriarentzat" bideratutako ekarpena egiteko. Taldeko kideek asteon azaldu dutenez, herriko haurrek eta gurasoek

euren ekimenaren berri izan dezaten, aurkezpen jaialdi bat egingo dute martxoan.

Duela urte batzuk Txotxongilo aisialdi taldea desagertu zenetik, Zaldibarko aisialdi eskaintza Arrasateko Txatxilipurdi eta Durangoko Berbaro elkarteek kudeatu dute, eta talde horiekin elkarlanean ibiltzeko beharra nabarmendu dute Txintxaur taldeko kideek: "Elkarlanean aritzea ezinbeste-

koa da proiektuak aurrera egin dezan". Gainera, "udalaren eta hezkuntza eragile guztien inplikazioaren eta konpromisoaren beharra ere" azpimarratu dute.

Gizarte integrazio arloko zein hezkuntza arloko ikasketak egin dituzten gazteak dira Txintxaur taldean elkartu direnak. Irailean hasi ziren lanean, eta haurrentzako hainbat ekintza antolatu zituzten abenduko San Esteban egunerako.

Matxuren aurrean hobeto jarduteko protokoloa Iberdrolagaz

ABADIÑO I.E.

Joan zen asteburuan, Muntzaratz auzoko hainbat herritar argindar zerbitzurik barik egon ziren hemezortzi orduz. Jose Luis Navarro alkateak martitzeneko udalbatzarrean onartu zuen udalak ezin izan zuela egoera behar bezala kudeatu, argindar zerbitzua eskaintzen duen Iberdrolaren eta udalaren arteko protokoloak ez zuelako funtzionatu.

"Udalari dagokio horrelako egoera batean herritarrak informatzea, eta Iberdrolagaz protokolo bat adostuko dugu, aurrerantzean erantzun hobea emateko", aurreratu zuen alkateak. Izan ere, asteburuko matxuraren aurrean behar bezala erantzun ez izana egotzi zioten jeltzaleek gobernu taldeari. Jose Luis Navarrok esan zuenez, "matxura asteburuan izanda ere, udalaren ardura da herritarrak behar bezala informatzea, eta horretarako udalaren eta zerbitzua ematen duen enpresaren arteko hartu-ema bestelakoa izan behar da".

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA
PSE-EE



Garesti irten zaigu

Orain dela hogeitau urte Tabira BI-623 biribilgunea diseinatu zen, ezin okerrago diseinatu ere. Arrazoi ekonomikoengatik egin zen hain eskas, euro batzuk aurrezteagatik. Hurrezkeroko, 92 istripu izan dira horren ondorioz, eta 260 lagun izan dira tartean: horietatik hiru larri zauritu dira, eta hiru hildako izan dira. Giza kostua oso handia izan da, baita ekonomikoa ere. Orain, 2.071.886 euro zahutu behar dira, aurreztu nahi izan zutena baino askoz gehiago, alegia. Ez al du inork horren erantzukizuna hartu behar? Hogeitau urte hauean, istripu ugari izan dira, eta aldarrikapen politikoak eta Ertzaintzaren txostenak ere bai. Bitartean, adabaki txikiak jarri dira arazoa konpondu nahian (abiadura-mugak, radarrak eta abar). Ez dugu "hobetzeko lanak" geldiarazteko eskatzen; aitzitik, lehenbait lehen hasteko eskatzen dugu. Ez dugu proiektu bat baztertzeko eskatzen, gure ekarpenak kontuan hartzeko baizik ez dugu eskatzen. Biribilgunetik Gasteiz bidea kalera doan sarbidea uzteko eskatzen dugu. Biztanle gutxiko kalea da hori, behar bezala urbanizatuta eta prestatuta dago gaur egun jasotzen duen zirkulazioa onartzeko, eta ezinbesteko sarbidea da gure udalerrian.

Hogeitau urte igarota, Aldundiak proiektu bat prestatu, argitaratu eta adjudikatu du, gaizki eginda zegoena berriz egiteko. Informaziorik eman gabe, eta udaletik bertatik egin ditugun ekarpenak aintzat hartu gabe. Bere errepideko puntu beltz bat kendu, eta gure udalerrira ekarri du. Administrazioek elkarlanean jardun behar dute ezinbestez. Baina nola ez dira biltzen alderdi beraren esku dauden bi administrazio? Zer dela-eta ez dute erantzukizuna beren gain hartzen?

Legealdiaren balantzea herritarrekin egin gura dute

Legealdiko proiektuen berri emango du udalak

ELORRIO Markel Onaindia Legealdia amaitzean dagoenez, azken lau urteotako gestioaren balantzea egingo du udalak. Baina, nobedade lez, herritarrekin batera egin gura du balantze hori. Izan ere, Joseba Mujika alkateordeak adierazi du partaidetza eta gardentasuna direla euren gobernuaren oinarriak.

Martitzenean, 19:00etan, legealdian garatutako proiektuen berri emango dute udal arduradunek Iturrin: animalien ordenantza, igerilekuak eta

Puia-Azkarretako zatikako plana, besteak beste. Etxeetan 22 gairekin osatutako galdetegi bat banatuko dute, eta, gero,



JOSEBA MUJIKAK

martxoaren 6an, 9an eta 10ean, kalean ipiniko dituzten mahaian jasoko dituzte herritarren balantzeak.

Iturri kultur etxeko itoginak konpontzen hasi da udala

ELORRIO M.O.

Iturri kultur etxeko itoginak konpontzen hasi da udala. Bertako lokalak erabiltzen dituzten hainbat elkarteek kexa agertu zuten duela aste batzuk, larrialdi irteeran itoginak zeudelako; sabaiaren egoeraz ere ardura agertu zuten.

Prensa oharrean azaldu dutenez, udalak 30.000 euroko aurrekontuagaz sustatu ditu obrak, eta, teilatu berria egiteaz gainera, barrualdeko sabai-faltsua eta kaltetutako horma ere berrituko ditu.

Pilotalekuko itoginak konponduko ditu udalak

GARAI M.O.

Herriko pilotalekuan itoginak sortu ziren, eta horiek konpontzeko asmoa du udalak. Teilatuko konponketez gainera, kaltetutako hormak ere hobetuko ditu. Hain zuzen ere, 30.600 euroko aurrekontua zehaztu du obra egiteko.

Diru-laguntza eskatu dio udalak Bizkaiko Foru Aldundiari, egitasmoa finantzatzeko. Edozelan ere, udal ordezkariak azaldu dutenez, laguntza jasoz gero, 15.000 eurokoa izango da gehienez.

HAURDUNALDIK- JAIÖBERRIAK- UMEAK- FAMILIAK- JAUNARTZEAK- EZKONTZAK



Kids & Kliks
argazkiak

Zengotitabengoa 1 (Berriz)
TFNO: 635 75 86 73

WWW.KIDSANDKLIKS.COM
info@kidsandkliks.com

Kaixo!
ireland

Uda Irlandan gozatu
Irlandako familia batekin
ingeleza ikasten

3aste
1400€

Jar zaitetz gurekin harremanetan!

www.kaixoireland.com



Maspe kalean 50 aparkaleku egokituko dituzte iurretarrantzat.

Maspera ere zabalduko dute eremu laranja

IURRETA Amaia Ugalde

Maspen, etxebizitzaren aldean dauden aparkalekuak iurretarrantzat gordetzea erabaki du Iurretako Udalak. 50 plaza inguru izango dira, eta zamalanetarako bi gune ipiniko dituzte bertan. Asteon, osoko bilkuran onartu dute ordenantza aldaztea. Maiatzaren hasierarako aurrekusi dituzte aldaketak, alegazio epearen ostean.

Lau hilabete dira aparkalekuaren ordenamendu berria ezarri zutenetik, eta aldaketetara zabalik dagoela nabarmendu zuen atzo Iñaki Totorikaguena alkateak: "Premiak zeintzuk diren ikusiko dugu, eta horietara egokituko gara". Maspeko auzokideek sarri eskatu dute eremu laranja euren kalera zabaltzea. Horregatik abstenitu da Bildu bozkaketan: "Beharri-zan hori ez da berria, hasierako

foroetan irten zen, eta lehenago erantzun ahal zitzaien".

Egoiliarren 300 txartel

Osoko bilkuraren biharamunean, Totorikaguena alkateak aparkalekuaren sistema berria baloratu du prentsaurrean.

Azarotik hona iurretarek aparkalekurako 300 txartel atara dituzte. Eremu urdinean, berriz, gehienez ordu eta erdi egoteko gunean, 200 tiket ateratzen dira egunean: "Gune hori indartu gura dugu, herriko merkataritzarentzat onuragarri izan daitekeelako". Askondo kalearen itxiera ere ondo baloratu du alkateak: "Herrigunean autoari espazio hori irabazi dugu". Laster hausnarketa zabalduko dute herrian, Askondoren erabilera indartzeko. Aterpe bat ipintzea aztertzen dabilzala azaldu du.



Omnia auzokide elkarteak aurkeztuko dute Zaldibarren, gaur

M24 Itsaso Esteban

Gaur, 19:00etan, liburutegi zaharrean egingo duten aurkezpen ekitaldian jendarteratuko dute Omnia auzokideen elkarteak proiektua. Maiatzeko udal hauteskundeetara begira sorturiko "auzokideen elkarteak da" Omnia, eta, sortzaileek aurreratu dutenez, herriko politikagintzan "partaidetza bultzatzeko" asmoa dute. Taldeko kideen berbetan, "auzotarrak gara, eta

herritar guztiok parte hartzea eta erabaki ahal izatea gura dugu". Taldekideek azpimarratu dute "politika beste modu batera egin" gura dutela, eta, horretarako, "auzokideen hitza entzun" behar dela.

EAEko hainbat herritako talde independenteak biltzen dituen Ikune elkarteak kide da Omnia, eta gaurko ekitaldian Alvaro Barrios erakunde koordinatorra orokorrak hartuko du parte. Aurreratu dutenez, Jose Luis Navarro Abadiñoko Independenten taldeko zerrrendaburu eta herri horretako alkateak ere parte hartuko du Zaldibarko elkartearen aurkezpenarekin.

Elikadura burujabetzarako ideiak batu ditu EH Bilduk

M24 Markel Onaindia

Hauteskundeetara begira, arlo zehatz bati buruzko batzarra egin zuen eguaztenean EH Bilduk, Durangon. Elikadura bu-

rujabetzarako aurrerapausoak emateko proposamenak batzea izan zen koalizioaren asmoa, eta sektoreko eragileak gonbidatu zituzten. Josu Unanue ahaldu nagusi izateko hautagaiak parte hartu zuen bertan.

Unanuearen ustez, lehenengo sektorea indartzea "ezinbestekoa" da. Ohartarazi zuen, Bizkaian, elikagaien %5 bakarrik dela bertakoa.



Josu Unanue, Pinondo Etxean.

> DURANGALDEA ASTEON

Auzolanerako deia egin du udalak

ZALDIBAR > Olazar futbol zelaiaren inguruan hobekuntza gehiago egiten laguntzera deitu dituzte herritarrak. Lehen futbol zelaia zenaren ingurua atondu dutenetik jende gehiago joaten da kirola egitera, eta, horregatik, helburua hobetzen jarraitzea da. Bihar, zapatua, goizeko 09:00etan hasiko dituzte auzolanak.

Gure Esku Dagoren auzkezpena

ELORRIO > Elorrioko Gure Esku Dagok ekitaldia antolatu du martxoaren 5erako, 19:00etan, Arriola antzokian. Bertan aurtengo ekimenaren gaineko azalpenak emango dituzte, eta apirilaren 25eko eta ekainaren 21eko ekitaldiei buruz ere jardungo dute. Aurkezpen ekitaldian Angel Oiarbide egongo dela adierazi dute.

Ziklo berritzailea hizpide Maristetan

DURANGO > Maristetan eta beste lau ikastetxetan Etekin Handiko Zikloa (ETHAZI) martxan ipini zuten iaz. Proiektuaren ezaugarri bat ikasleen arteko talde-lana sustatzea da. Egunean euren zentroetan ETHAZI txertatuko duten 50 irakasle Maristetan izan ziren, esperientzia gertutik ezagutzeko.

> Iritzia

Ikuskizun lotsagarria. Non bizi gara?

Durango Street KO ikuskizunera abiatu ginen hainbat lagun larunbat arratsaldean. Sarrera guztiak salduta zeuden: 700 bat, antolatzaileen arabera. Harrera ona izan zuen, beraz, durangarren aldetik ekitaldiak. Baina lotsagarria izan zen antolatzaileek bertara joan ginen ikusleerikoa hasieratik eta bukaerara izandako errespetu falta. Gutariko askok ez genekien zertan zetzan txapelketa, eta zerbait berria ezagutzeko grinak eraman gintuen txapelketa horretara. Ekitaldiaren hasieran esaniko "arratsalde on" izan zen euskaraz entzun genituen hitz bakarrak. Iraingarria, beraz, hizkuntzari dagokionez, euskarari eman zitzaien trataera ekitaldi osoan. Baina ez zen horretan geratu; gainera, euskal abizenen kontura, *Ocho apellidos vascos* filma dela-eta, inolako graziarik egiten ez zuen txiste gogaikarrien bat edo beste ere entzun behar izan genuen. Agian aurkezleak ez daki gu euskaraz bizi garela eta euskaldun izateaz harro gaudela. Hori ere jakin beharko luke ekitaldiaren antolakuntzan ibili den taldeak. Baina ez zen hori bakarrik izan, lotsagarria izan zen ekitaldi osoan jasan behar

izan genuen jarrera sexistak. Adibidez, aurkezle espainolaren ahotik entzun behar izan genuen honako hau ere: "Seguru nago orain irtengo diren hauek gogoz txalokatuko dituzuela, hurbil daitezela bada..." eta neska bi agertu ziren, nola ez, erdi biluzik, dantzan (baldin eta horri dantza deitu ahal bazaio). Eta publikoa algaraka, kameekin titiak zein ipurdiak enfokatuz eta mota guztietako esaldi sexistak oihukatuz. Bakan batzuk izan ziren eraso horren aurrean amorrutuz erantzun zuten publikoko kideak. Emakumea haragi zatia balitz bezala, frontoian zegoen hotza zela-eta, zeramaten berokia kentzen zuten ekitaldiaren erdigune ziren bakoitzean. Argi eta garbi diotsot antolatzaile-taldeari ezin dudala ulertu nola eman dion bide honelako ekitaldi lotsagarria antolatzeari. Baina herritarrak haserre gaude, bai emakumeak, bai gizonak, eta ez gaude jarrera hauek onartzeko prest. Erantzukizunez joka dezatela. Euskaldunok Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dugu, eta emakumeok ez gara haragi zati bat, pertsonak baizik.



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Behargintza



Augusto Uriarte Durangaldeko Behargintzako zuzendaria, Maria Jesus Ormaetxea enpresa sorkuntzarako aholkularitza zerbitzuko teknikaria eta Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea.

Behargintzako garapen agentziak 69 enpresa sortzen lagundu du 2014. urtean

Durangaldeko Amankomunazgoak bultzatutako ekimenaren laguntzagaz, ekintzaileek 91 lanpostu sortu dituzte

> DURANGALDEA J. Guenetxea Ekintzaile bati, egitasmo bat aurrera eramateko ideia duen momentuan, hainbat zalantza datozkio burura. Izan ere, arlo jakin batean aditua izan arren, enpresa bat sortzeak sarritan ezezagunak diren tramiteak aurrera eramatea eskatzen du. Durangaldeko Amankomunazgoaren Behargintza zerbitzuak zalantza horiek argitzen laguntzen die enpresei, proiektua martxan jarri ahal izateko. Besteak beste, zerbitzu horrek lantzen ditu hartu beharreko forma juridikoa, eratzeko lege tramiteak, finantzaletarako dauden bideak, enpresa sortzeagatik eta jarduera horri bideratuta dauden diru-laguntzak, eta enpresa kudeatzeko prestakuntza.

Iaz, Amankomunazgoko garapen agentziak bultzatzen duen enpresak sortzeko zerbitzuak 183 pertsonari eskaini ziren aholkularitza. Horietatik 92 gizonak izan ziren eta 91 emakumeak. Datuak genero ikuspegitik aztertuz gero, gizon eta emakume ekintzaileen kopurua oso parekoa da Durangaldean. Prozesu horren ondoren, 2014an Behargintzak 69 negozio abian jartzeko laguntza eman zuen.

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea azaldu

duenez, “urterik urte hobetzen ditugu emaitzak, eskaintzen ditugun aholkularitza eta formakuntza eraginkorrak direla esan dezakegu. Baina gehien animatzen gaituena ekintzaileen apustua da, Durangaldean zer egin badagoela esan dezakegulako”.

183
pertsonari aholkularitza eskaini zien Behargintzak 2014. urtean

%78
dira forma juridikotzat enpresaburu indibiduala aukeratu dutenak

Lanpostuak sortzen

Aholkularitza jaso duten negozioetan, 91 lanpostu sortu dira. Orain bi urteko datuekin alderatuz gero, 2013an 197 pertsonari eskaini zieten aholkularitza eta 65 negozio sortu ziren. Beraz, negozioen sorrerak gora egin du azken urtean.

Behargintzaren zerbitzua eskualdeko edozein pertsonak

konsultatu dezakeen arren, jatorriari dagokionez, durangarrak izan ziren zerbitzua gehien erabili zutenak. Ekintzaileen %39 Durangokoak izan ziren, eta, guztira, herri horretako 71 lagun hurreratu ziren (37 gizon eta 34 emakume). Beste herri batzuetako sustatzaileek ere parte hartu dute Amankomunazgoaren zerbitzuan: Abadiñoko 30 sustatzaile (hamasei gizon eta hamalau emakume), Elorrioko hemezortzi sustatzaile (sei gizon eta hamabi emakume), Iurretako zortzi sustatzaile (lau gizon eta lau emakume), Zaldibar zortzi sustatzaile (lau gizon eta lau emakume), Atxondoko lau sustatzaile (bi gizon eta bi emakume) eta Mañariko bat (gizonezkoa). Gainerako sustatzaileak Amankomunazgoko zerbitzuan parte hartzen ez duten herrietatik eta Durangaldetik kanpoko herrietatik joan ziren: Zornotza (bederati), Berriz (sei), Ermua (lau) eta Garai (bat).

Sustatzaileen profila

Ekintzaileek ondo dakiten moduan, krisi sasoi honetan bakoitzak bere egitasmoa martxan jartzea izan daiteke lana aurkitzeko beste bide bat. Aholkularitza jaso zuten pertsonen %59

langabezian zegoen. Zerbitzua jaso zutenen %41, aldiz, lanean zebiltzan jarduera bat norbere kontura jartzeko jarraitu beharreko urratsen gaineko interesa adierazi zutenean. Baina zein da ekintzailearen profila Durangaldean? Adinari dagokionez, pertsona gaztea da, 25-45 urte bitartekoa, Lanbide Heziketako edo goi mailako ikasketak dituen, eta teknologia berriak erabiltzera ohituta dagoena.

Pertsonen zerbitzua ematea

Ekintzaileek martxan jarritako enpresen artean gehien aukeratutako forma juridikoa enpresaburu indibidualarena izan zen. Egitura juridiko hori dute sortutako enpresen %78k. 54 lagunek aukeratu zuten mota horretako enpresa sortzea. Ondasun erkidego (hamaika enpresa), kooperatiba (hiru) eta

sozietate mugatu (bat) formak ere aukeratu zituzten. Sektoreei dagokienez, sortutako enpresen %36, hau da, 24 enpresa, pertsonen zerbitzuak eskaintzeko sortu zituzten, bai komertzioetan (hamasei), bai beste enpresa batzuei zerbitzuak emateko (hamabost). Ostalaritza arloan bost negozio zabaldu zituzten, eta industria arloan lau. Garraioan, artean, eskulangintzan eta baso sektorean ere sortu zituzten jarduerak.

Amankomunazgoa 2002. urtean hasi zen zerbitzua eskaintzen. Harrezkero, 1.500 sustatzaile hurbildu dira, 1.400 enpresa proiektugaz, informazioa jasotzera. Egitasmo horietatik 472k egin dute aurrera. Sortutako enpresa horien artean gorakadarik garrantzitsuena pertsonen zerbitzuak emateko enpresetan gertatu da.



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

Behargintza

Norbera bere enpresaren buru

Enpresen sorreran zailtasunak egon badaude, baina baita poztasunerako momentuak ere. Enpresa martxan jarri, eta eskainitako zerbitzuagaz bezeroak pozik daudela ikustea da ekintzaile gehienak gogobetetzen dituen. 2014. urtean Behargintzako aholkularitza jasota martxan jarritako bost enpresatara jo dugu bakoitzaren esperientzia ezagutzeko.

JANIRE GARZÓN QUINTANA eta RAÚL HERNÁNDEZ PETREL // DURANGO

“Behargintzak bideragarritasun plana egiten lagundu digu”

2014ko irailean jarri zuten martxan Forester argazki zerbitzua. Askotariko argazkiak ateratzen dituzte Janire Garzonek eta Raúl Hernandezek. Ezkontzak, bikote saioak, jaioberriak, umeak... Apurka-apurka www.foresterfotografos.com



webguneak izan duen harrera ona eta egindako lanarengatik bezeroek emandako esker on hitzek bikote profesional honi aurrera egiteko indarra ematen diote. Elkarrekin atera gura dituzte argazkiak munduko edozein txokotan.

Enpresa martxan jartzerakoan, *coworking* espazio bat falta izan dela uste dute. Behargintzak enpresaren sorreran lagundu die, bereziki enpresen sorrerako ikastaroaren bidez, eta baita bideragarritasun planaren bidez ere.

JOSÉ MARIA DE COS GONZÁLEZ // DURANGO

“Kalitatea prezio lehiakorrek eskaintzea da gure publizitate onena”

Elikadura ekologikoko produktuak eta elikadura naturaleko jakiak soltean saltzen ditu Jose Maria de Cosek Ekosano dendan. Pasta, irina, lekaleak, fruitu lehorrak, teak, infusioak, ogia eta ontziratutako produktuak saltzen ditu Alde Zaharreen, 2014ko abenduan zabaldu dudan. “Kalitatea prezio lehiakorrek eskaintzea da gure publizita-



terik onena”, azaldu du Ekosanoko buruak. Bezeroen produktuak beste batzuei aholkatzea izan da dendari dela izandako lorpen handiena. Zailtasun handiena, berriz, denda ahalik eta arinen zabaltzeko hornitzaileekin eta abarrekin koordinatzea izan dela aitortu du. Behargintzaren laguntza ere jaso zuen informazioa eskuratzeko. “Ondo salduko direla uste duzun produktuekin asmatzea garrantzitsua da”. Ekosano denda txikia den arren, espazio ondo aprobetxatuta dagoela dio, eta produktuak eskaeraren arabera ekartzen dituztela. “Merkatuko joerei adi egon behar duzu”.

JESÚS MARIA DE LA RIBA ALLENDE // DURANGO

“Behargintzan aipatutako berba bat gakoa da enpresa bat sortzeko: sinergia”

Errotulazio eta irudi digitala, eta zerbitzu grafikoak eskaintzen dituzte Jazz Rotulación enpresan. Logotipoak eta markak sortzen dituzte bezeroaren ideiatik abiatuta, eta bezeroek gura duten euskarrira egokitzen dute. Durango-ko Azokako babesleen publizitateak jartzen ekin zioten bideari 2014ko abenduan. Enpresa berria Jazz Solutions enpresan integratua



dago, zerbitzu eskaintza zabalago bat emateko.

Bankuen aldetik, zailtasun handiak ikusten dituzte. “Zaila da kapital gabe enpresa bat martxan jartzea”. Jesus Maria de la Ribak gogoratu duenez, “Behargintzan berba bat aipatu zidaten, eta berba hori gakoa izan da negozioa martxan jartzeko: sinergia”. Sinergiak bilatzea izan da helburua. Eta orain zerbitzu zabal horiek ezagutaraztea dute erronka. Ateak jotzea dela hurrengo pausoa dio de la Ribak: “Batzuetan ateak zabaltzen dira, eta beste batzuetan ez, baina ahalegintzen jarraitu behar dugu”.

ISABEL CASTRO URANGA // DURANGO

“Enpresan daukagun guztia gure ahaleginari esker izan da”

Kirol osagarriak saltzen dituzte Fitness Nutrition Durango dendan. Isabel Castro enpresariaren arabera, orain arte inguruan egon ez den zerbitzu bat eskaini, eta aurrera ateratzea da helburua. Negozio bat zabaltzea inbertsio handia dela eta lan handia egin beharra dagoela onartu du. Oztopo handiak beharrez, egunerokotasunean sortzen diren zailtasu-



nak gainditu behar direla gaineratu du. Momentuz, 2014ko otsailean zabaldu dudan denda bultzatzea dute helburu. Enpresa haztea gurako lukete, baina oraingoz proiektu honetan dabilta buru-belarri.

Enpresa martxan jartzerakoan, bankuen aldetik babes gutxi jaso izana kritikatu du. “Bankuek malguagoak izan beharko lukete”. Castrok dioenez, “daukagun guztia gure ahaleginari esker izan da”. Gainera, Durangaldeko Behargintzatik jasotako zerbitzuagaz oso pozik daude Fitness Nutrition Durangon. “Eskerrak eman gura dizkiegu emandako aholkuagatik eta babesarengatik”.

ITZIAR CACHO MARDARAS eta M. PAZ ALONSO VILLASUR // ELORRIO

“Proiektuagaz eta momentuagaz asmatzea oso garrantzitsua da”

Itziar Cachok eta Pazek garbiketa eta publizitate banaketa enpresa zabaldu dute Elorrión. Itzi&Paz izena jarri diote 2014an martxan jarritako egitasmoari. Uste dute proiektuagaz asmatu dutela eta behar zen momentuan jarri zutela martxan.



Gaineratu dutenez, gainditu behar izan duten zailtasun handiena euren lan egoera berria onartzea da: autonomoak direla onartzea. Haztea eta lana sortzea espero duten arren, momentuz ez dute beste proiekturik esku artean. Enpresa martxan jartzerakoan, faltan bota dute laguntza ekonomikoa “hainbeste traba eta filtro jarri gabe” jaso ezin izana. Behargintzaren zerbitzuagaz “pozik” daude. Eskerrak eman dizkiote Behargintzari eskainitako aholkularitzarengatik.



JATETXE GIDA

ÑAM!



MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)

ÑAM!



JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 946 824 077

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



PLATERUENA Kafe Antzokia

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!



PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ
Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka,
astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!



LAPIKO

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122

Etxeko pizzak. Eguneko menua,
karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.
www.lapikodurango.com

ÑAM!



IBARRA SAGARDOTEGIA

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
www.ibarra-sagardotegi.com

Tel.: 946 731 100

Egunero zabalik.
Gure upategian egindako sagardoa.
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.



Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi
personarentzako menua zozkatuko dugu

Zer herritan jokatzen da Biharko Izarrak
pilota txapelketa?

Zozketako irabazlea: **Angela Lizundia** zorionak!
ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo
ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

ZORTE
ON!

Bilboko 'Musika-Música' jaialdian joko du Bartolome Ertzillako gazteen orkestrak

Haendel konpositorearen errepertorioa eskainiko du Durangoko orkestrak Bilboko Euskalduna jauregian



Musika eskolako areto nagusian egin dituzte, asteon, martxoaren 6ko emanaldia prestatzeko entseguak.

> MUSIKA Itsaso Esteban Datorren asteburuan, Bilboko Euskalduna jauregian egingo duten Musika-Música jaialdian parte hartuko du Bartolome Ertzillako musika eskolako gazte orkestrak. Emanaldi berezi hori prestatzeko entseguetan buru-belarri dabilza musikari gazteak. Aurten Haendel eta Bach konpositore alemaniarren musikaren inguruan antolatu dute Bilboko musika jaialdia,

eta martxoaren 6an, 18:30ean, joko du Bartolome Ertzillako orkestra gazteak bertan. Haendelen musika joko dute Durangoko musika eskolako hari-instrumentuz osatutako orkestrako kideek, Euskalduna jauregiko sarreran: kontzertuaren zati bat Bidane Txopitea sopranoagaz eskainiko dute, eta beste zati bat, ostera, instrumentala izango da.

Eunate Zarrabeitia irakaslearen zuzendaritzagaz jardun-

go da Bartolome Ertzillako orkestra gaztea. “Musika-Música oso jaialdi inportantea da, eta erronka da guretzat bertan jo ahal izatea”, adierazi du Zarrabeitia. “Ikasleentzat eta euren familientzat aukera ederra da Bilboko musika jaialdi hori ezagutzeko. Aukera honen atzetik ibili gara azken urteotan,



“Erronka handia da guretzat jaialdi horretan jotzea”

EUNATE ZARRABEITIA

eta oso pozik gaude, azkenean lortu dugulako jaialdi handi horretan jo ahal izatea”.

Eunate Zarrabeitia orkestra zuzendariak azpimarratu du

musikariarena talde-lana izaten dela gehienetan, eta “bizipenetatik ikasten” dela gehien: “Horregatik, talde batentzat oso inportantea da jendaurrean jotzera ateratzea, musikariaren lana zein den ikusteko”.

12 eta 30 urte arteko 24 musikari osatzen dute Durangoko Bartolome Ertzillako musika eskolako gazte orkestra. Orkestraren kideetako batzuk kontserbatorioan erdi mailako musika ikasketak arautuak egiten dabilza, eta nahitaezko ikasgaia dute Orkestra. Beste batzuk, aldiz, musika eskolako ikasleak dira.

Durangokoaz batera, beste 25 kontserbatoriotako eta musika eskolako orkestrek joko dute Bilboko Musika-Música jaialdiko musikari profesionalen emanaldien tartean. Hiru egunean, goizez eta arratsalde, eskainiko dituzte han-hemenago musikariek XVIII. mendeko musika barrokoagaz osatutako emanaldiak.

Guztira, 75 kontzertu izango dira martxoaren 6tik 9rako asteburuan, Euskalduna jauregian. Besteak beste, Bilboko, Asturiasko, Granadako, Sevillako eta Euskadiko orkestra sinfonikoek eskainiko dituzte saioak, eta Haendel eta Bachen musikan mundu mailako espezialistak onenek ere bai: instrumentistek –organistek, oboe-jotzaileek, biolinistek, tronpetistek, flautistek eta biolontxelistek– zein abeslariak –sopranoek, mezzosopranoek eta tenorek–.

Hamabi taldek joko dute 40 Minutu Rock-en

Durangoko Landako Gunean izango da musika jaialdia, bihar, eta 10:30ean zabalduko dituzte ateak

> MUSIKA Bihar, 10:30ean hasita, Durangoko Landako erakustazokan izango da hitzordua, eta dozena bat musika talderen zuzeneko ez gozatzeko aukera izango dute bertaraten direnek.

Entzungai izango diren taldeetatik gehienak Euskal Herrikoak izango dira, baina Estatuako hainbat musikaririk ere joko dute horien artean: 1980ko hamarkadan Madrilen sortutako Def Con Dos taldekoen musikak lekua izango du jaialdian, eta baita Valentziako Los Chicos del Maiz taldearenak ere. *La estanquera de Saigón* disko berriko kantak eskainiko dituzte erritmo eta berba biziz.

Anestesia, Betagarri, Governors, Hesian, Iheskide, Kao-

tiko, Enkore, Oliba Gorriak, Izerdi Gorria eta Zea Mays dira biharko jaialdiko kartela osatu duten taldeak. Iheskide talde elorriarra izango da 40 Minutu Rock jaialdian ariko den Durangaldeko talde bakarra. Iaz kaleratu zuten *Borrokak darrai* izenburuko diskoko kantak joko dituzte Durangon.

1980ko hamarkadan Madrilen sortutako Def Con Dos taldekoen musikak lekua izango du jaialdian

Da disko berriko kantak zein taldearen abesti ezagunak joko ditu Zea Mays Bilboko lauko-



Elorriko Iheskide taldea izango da jaialdian parte hartuko duen Durangaldeko talde bakarra.

teak; Oliba Gorriak taldea urte batzuetan zuzenean jo barik egon eta gero bueltatuko da agertokietara; 25 urteko ibilbidea duen Anestesia taldeak ere geldialdi baten osteko emanaldian eskainiko ditu metal eta hardcore estiloko kanta bizkorak, Landakon; hardcore melo-

dikoa ekarriko du Enkore Bilboko Errekalde auzoko laukoteak Durangora; erritmo gordinak Governors-ek jarriko ditu; doinu dantzagarriak hogeigarren urtebetetzea ospatzen dabilen Betagarri taldeak zein Hesian taldeak; eta *EH Calling* diskoko kantak eskainiko ditu Kaotikok.

Sarreraren alde aurreko salmenta oso bizkor joan dela diote jaialdiaren antolatzaileek, eta jende asko espero dute. Edozelan ere, zapatuan bertan, 10:00etatik aurrera, sarrerak eskuratzeko aukera izango da, Landako Gunean atonduko duten txartel-lehiatilan.

> DANTZA Itsaso Esteban
Etzi, martxoak 1, Durangoko San Agustin antzokian eskainiko dute Isaak Erdoiza abadiñarak eta bere taldekideek *El cielo ahora* dantza ikuskizuna. 2011. urtean San Agustinen erakutsi zuten *Privolva* ikuskizuna sortu zuten lantaldeari beste kide bat gehitu zaio obra honetarako. Idurre Azkue gehitu zaie Pilar de Andresi, Olatz de Andres eta Isaak Erdoizari. Mitologiari buruz taldekideek egindako gogoeten inguruan eraikitako lana da *El cielo ahora*. Hainbat galdera planteatzen ditu obrak: “Mitologiak zer eragin izan du

Dantza garaikidea, mitologiak gogoeta egiteko: ‘El cielo ahora’

Etzi, 19:00etan, Durangoko San Agustinen izango da obra ikusgai

historian, eta zer eragin du gaur egun gudan?”, esaterako.

Iaz, Bilboko dantza garaikidearen BAD jaialdian aurkeztu zuten *El cielo ahora* ikuskizuna. Bi egunez jarraian eskaini zuten emanaldia, eta saio guztietan ikusle zen aretoa. “Kritikaren eta publikoaren aldetik oso erantzun ona jaso genuen”,

gogoratu du ikuskizunean parte hartzen duen Erdoizak.

Olatz de Andres dantzariaren ideia da ikuskizunaren ardatza, eta talde-lanagaz eman diote itxura dantzariak, Bartzelonako El Graner sormenerako gunean izan duten egoitza artistikoan. Erdoizaren berbetan, “dantzaren munduan leku erreferen-

tziala da Bartzelonako El Graner, eta aukera ederra izan da”.

Isaak Erdoiza dantzariarentzat oso berezia izango da domekako emanaldia: “Emozio handia sortzen dit, publikoaren erdia lagunek eta familiar-tekoek osatuko dutelako; urdurtasuna eta poztasuna sentitzen ditut aldi berean”.

GEURE DURANGALDEA

JON ANDER
URKIAGA
EGIDAZU

Kazetaria



3x1

Bat: Aratusteak. Egin beharrekoak egin, eta haragia alboratzeko egunak ate-joka. Haragikerien eta bestelako gehiegikerien sasoi. Norbere alde intimoei lekua uzteko garaia. Adibidez, mutil nerabeek lotsarik gabe ateraten dute euren alde femeninoa, amari ostutako arropak jantzita. Alde ezkutuen bistartzeko egunak. Beste batzuek, oster, euren alde... bai, nola esan, alderik... beno, beste batzuek beste alde bat erakusten dute inauterien harira. Baina, aurten, “hauts zara eta hauts bihurtuko zara” esaldiari lotutako liturgiak “hauts zineten eta hauts bihurtu zintuzteten” orbanari egin dio lekua. Txalogarria da koherentzia, eta osasungarria inkoherentzia. Baina, inoiz harririk bota ez duenak bota badezake soilik lehen harria, irakaspen demokratiko gehiagorik ez arrerantzean, mesedez.

Bi: Txanpona baino objektu zorigaiztokoagorik ez dakit dagoen. Alde batek psekula ez du bestea ikusiko. #Euskeraskatasunez: bai, noski. Barakaldon, Tuteran zein Uztaritzen. Eta nire herriko zinegotzi guztiekin. Inor asalatu gabe. Euskaraz eta askatasunez bizi nahi dudalako. Beraz, larunbatean, zuok ere Donostian babestu ahalko duzue #Euskeraskatasunez erabiltzeko eskubidea (17:30ean, Gipuzkoa plazan).

Hiru: “Autobusean isiltasuna / lurrina kristalean”, baina oraingoan Durangora bidean. Askatasun doinuak, askatasunari beharrean, askatasunean izan daitezten hurrengoan. Eta ezin bada horrela izan, zuek lasai, pazientzia osoz itxarongo zaituztegu. 40 minutuz zein 40 urtez.



Abadiñoko Isaak Erdoiza da ‘El cielo ahora’ ikuskizuneko dantzarietako bat.

Korrika aurreko egunak bertsoz, musikaz eta antzerkiz margotzeko

Hainbat hitzordu daude martxoan, Durangaldean, Korrika Kulturaren harira

> EGITARAUA

Martxoaren 23an AEKren eskutik Durangaldea kolore biziz jantziko duen Korrikaren iragarle, Korrika Kulturalaren

egitarauko hainbat kultur emanaldi izango da datozen asteetan eskualdean. Bertsolaritzagaz, antzerkiagaz zein musikagaz lotura duten emanaldiak anto-

latu dituzte herrietako Korrika Batzordeek. Martxoaren 5ean, Durangon izango dira lehenengo hitzordu biak: udal euskaltegian, Pako Aristi idazleagaz

saioa izango da 09:30ean; eta, Plateruenean, bertso saioa Igor Elortzagaz, Miren Amurizagaz, Unai Iturriagaz eta Manu Goigoganagaz, 19:30ean.

Antzerkia eta musika ere izango dira Korrika Kulturalaren harira, Durangaldean. Martxoaren 12an, Xabier Mendigurenen testuan oinarrituriko *Amodioaren ziega* obra eskainiko du Lauka Teatro taldeak. Urki Muguruza zarautzarragaz batera, Durangaldeko hiru aktorek dihardute *Amodioaren ziega* lanean: Eneko Sargardoyk, Joana Ocañak eta Nazaret Froufek.

Martxoaren 27an, bestalde, *Gosariak* ikuskizunaz gozatze-ko aukera ekarriko du Korrika Kulturalak Elorrioko Arriolara: Joseba Sarrionandiaren testuak, Gose taldearen doinuak, eta Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea artista plastikoen lana. Gainera, 28an, bertso afaria ere izango da Elorrion, Andoni Egañagaz eta Maialen Lujanbiogaz, Gazetako elkartearen.



Musika, arte plastikoak eta poesia uztartzen dituen ‘Gosariak’ ikuskizuna eskainiko dute Elorrion. Saioa ‘Gauilunak’

Sanagustinale, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

El cielo ahora
Olatz de Andrés

Martxoaren 1ean
19:00etan

dantza garaikidea

San Agustin KULTUR GUNEAN

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA


OTSAILAK 27
21:30ean DOAN
DURANG(H)OTS SESSION
MUSIKA KONZERTUA

3BIDER2

MARTXOAK 6
OSSO + TUTAN COME ON + JOSEBA B LEINOIR DUO
MUSIKA KONZERTUA

RAY FERNANDEZ

MARTXOAK 7
22:30ean 10€
RAY FERNANDEZ
MUSIKA KONZERTUA



Egin zaitez harpidedun!

DOAN

ZER DA ANBOTO?

Durungaldean barikuro banatzen den euskara hutsezko astekaria da ANBOTO. 2001ean sortu zen, Durungaldeko euskara elkarten ekimenez, eta asteen 11.000 ale banatzen ditu.

HARPIDETZA

Harpidedun egiteko honako 4 aukera hauek dituzu:



- IZENA
- ABIZENAK
- HELBIDEA
- EMAILA
- HERRIA TELEFONOA

► Berbaz

Oier Araolaza Arrieta | Dantzaria | Eibar, 1972

“Gizartean aurkitu dezakeguna aurkitu dezakegu dantzan”

Araolazak dio emakumeak ia garai guztietan borrokatu direla espazio publikoa monopolizatzeke gizonen ahaleginen kontra

► **BERBAZ** *Jone Guenetxea*
Oier Araolaza kazetari eta antropologo ezaguna da dantzaren munduan. Eibarko Kezka, Elgoibarko Haritz eta Donostiako Argia dantza taldeetan dabil. Dantzari eibartarrak dantza tradizionala generoaren ikuspuntutik aztertu du Platerueneko Berbertan zikloan.

Genero bereizketa betidanik egon da dantza tradizionalan?

Dantza tradizionala gizartearen adierazpen bat da. Beraz, gizartearen isla besterik ez da. Gizartean aurkitu dezakeguna aurkitu dezakegu dantzan, lehen eta orain. Historiari begiratu gero, ikusten dugu momentu batzuetan beste batzuetan baino jarrera zurrunagoak egon direla generoaren gaiarekiko. Berdintasunaren ikuspuntutik, garai batzuk lasaiagoak izan dira eta beste batzuk zailagoak. Hala ere, emakumearen parte-hartzea dantzan uste duguna baino zabalagoa, ohikoagoa eta arruntagoa izan da, nahiz eta ia garai guztietan borrokatu behar izan duen debekuen eta plaza publikoa monopolizatzeke gizonen ahaleginen kontra. Eraiki dugun mutil dantzariaren irudia aurkaritza horretatik abiatu da.

Ezpata dantzariak eta ‘hilanderak’ zelan sortu ziren?

Poxpolinak XX. mendean asmatu ziren, hain zuzen ere, ordura arte mutilek betetzen zituzten dantzen ondoan emakumeentzat espazio bat sortzeko. Ondorioz, dantzarako bi estereotipo eta bi eredu, bi ibilbide eta bi jantzi sortu dira. Eta, gaur egun, toki askotan horixe dugu arazo latza. Hau da, dantza asko mutilekin identifikatzen dira, baina dantza horiek dantzarien dantzak dira. Eta ez du zertan emakumeen zein gizonen dantza izan.

Garai batean ematen zuen gizonen eta emakumeen dantzak zeudela. Egoera aldatzen dabil?

Gauzak askoz ere konplexuagoak direla esango nuke. Garai batzuetan eta toki batzuetan egon dira dantza batzuk gizonen dantzak izaten zituztenak, eta beste dantza batzuk emakumeek dantzatzeko zituztenak. Beste askotan, dantzak ziren bakarrik; generoa kontuan hartu gabe dantzatzeko ziren. Esango nuke kasu askotan gaur egungo ikuspuntutik mutilen dantzatzat ditugun askok bere momentuan ez zutela genero markarik. Dantza erritualak, ikuskizunetan egiten ziren dantzak ziren. Gertatzen dena da garai

hartan espazio publikoaren monopolioa gizonen zela. Baina horrek ez du esan nahi dantza haiek gizonen zirenik. Oso zaila da hor mugak jartzea. Esate baterako, garai batean alkateak gizonen zirenik, baina horrek ez du esan nahi emakumeak ezin zirenik alkate izan. Emakumeek ez zitzaizkien baimentzen espazio horretara sartzea. Legeak aldatu direnean eta berdintasunean pauso txiki batzuk eman direnean, emakumeak alkate izan dira.

Eta bikoteen dantzetan generoaren funtzioa oso markatuta dago.

Bikoteen oinarritzen diren dantzak ere badaude. Generoetako bakoitzak posizio bat hartu du hor, eta funtzio bat hartu du. Dantzakera eta paper bat hartu du. Heldutako dantzetan, adibidez, balsean eta pasodoblean, joera izan da bikote bakoitzeko genero biek lekua izatea, eta bakoitzak paper bat izan du. Tangoan askoz ere nabarmenago ikusten da. Batek agindu egiten du, eta besteak jarraitu egiten dio. Jotetan, sokadantzako parte batzuetan izan dira. Hor ere gauzak ez dira hain zurrunak. Genero berekoek ere parte hartu zezaketen bikotea ziren dantzetan. Bakoitzaren posizioa ere kolokan geratzen da. Ildo horretatik tangoaren munduan gauza interesgarriak gertatzen dabilta. Genero bereko dantzariekin osatutako bikoteak. Horrek oinarri guztiak zalantzan jartzen ditu. Esaten da dantzan egitea motorrean joatea bezalako delatza. Bi joan daitezke motor berean, baina batek gidatu behar du motorra, bakoitzak bere aldera eraman gura badu, bazterreko zuloan bukatu dezaketelako. Tangoaren kasuan, hasieran mutilek mutilekin dantzatzeko ziren. Estereotipoak sortzen ditugu, eta sorrera ahaztu egiten dugu. Eta, gainera, arauak sortzen ditugu hasierara ez gaitzezen bueltatu.

Generoaren gaiak dantza taldeak kezkatzen ditu?

Boladaka. Badaude talde batzuk gaia aztertzen eta ahalegina egiten, baina gi-

“*Ba ote dago arrazoirik emakume batek ezpata dantza ez egiteko?*”



zarteagaz batera doala esango nuke. Ematen du orain urrats bat aurrera ematen gabiltzala, baina aurrerago atzera egiteko arriskua dago. Informazio falta dagoela esango nuke. Oro har, gure dantzen historiari informazio gutxi dugu, eta horrek dena baldintzatzen du erabakiak hartzerako orduan. “Hori ez da inoiz horrela egin”, esaten dute batzuek. Dantza taldeetan badagoenez tradizioagaz jarraitzeko borondatea, zerbait inoiz egin ez bada, kosta egiten da orain egin daitekeela planteatzea. Eta, historia ezagutzen ez dugunez, “horrela egin da beti” esaten dugunean, gehienetan gezurra esaten dugu, nahiz eta gu horren jakitun ez izan.

Euskal dantzak zelako egoeran daude?

Orokorrean, uste dut komunikabideek eragin handia dutela. Administrazioak ez du dantzekiko interes handirik. Horrek eragiten du gauza batzuetan gabezia handiak izatea, eta nahiko herren ibiltzea. Kontrara, ikusten dut testuinguru oso negatiboa izan arren, giroa dantzaren aldekoa ez izan arren, izugarriko parte-hartzaile eta zale kopuru handia duela dantzak. Ez du gizartearen zati handi bat hartzen, baina zati txiki horrek dinamika handia du. Ia herri guztietan daude dantza taldeak. Gazteen artean, zalantzan jartzen da gazteek kulturaren duten inplikazioa. Gazteak oso jarduerak gutxitzen dituzten dira, baina, bitxia bada ere, dantzan gazte asko inplikatu da. Alde horretatik, pozgarria da pentsatzea dantzak ematen

diela gazteei eta zaleei zerbait eskertzen duguna edo bilatzen duguna gure bizitzan.

Durangaldean, gizonen Ezpata-dantzari Egunari gehitu zaio Dantzaroa.

Dantzaroak eredu bat erreproduzitzen du, baina ez dio arazoaren muinari kolpe egiten. Eremu estankoa markatzen ditu, nahiz eta parte hartzen duten askok kontrako pentsatu; hau da, emakumeek berdintasunean dantzatzeko aukera bat dela. Praktikan kontrako da, emakumeak adierazten dietelako euren esparrua zein den, ez dezaten muga gurutzatu.

Iurretako Urrixenaren aurten emakumeek ere parte hartu dute.

Gauza bera da. Parte hartzen hasi dira, baina zertan? Aitortuak zaizkien dantzetan; gorularien estapan eta erregeletan orain urte batzuk aitorpen bat egin zelako. Ez euskaldunon hitzari eta bidari esker, baizik eta kanpotar batek, Humboltekin, orain berrehun urte esan zuen emakumeek sokadantzan ikusi zituela Iurretan, eta ebidentzia horren aurrean onartu behar izan zuten emakumeek ere dantza-tituluak erregela. Humboltekin ez zituenez neska ezpata dantzariak aipatu, eremu hori ez da planteagarria. Horrela, Urrixenaren badakite emakumeak zertan dantza-tituluak daitezkeen: zinta dantzan, arku dantzan, gorularien estapan eta erregeletan. Ba ote dago inolako arrazoirik emakume batek ezpata dantza edo dantzari dantza ez egiteko?

Angels Cucarella | Xake jokalaria | Valentzia, 1990

“Ez zitzaidan xakea gustatzen, nire anaiari irabazteko ikasi nuen jokatzeko”

Xakean emakume gutxi jokatzearen errua gizarteak duela uste du, emakumezkoen xakea ez delako sustatzen



> XAKEA Eneko Azurmendi Angels Cucarella valentziarra da izatez, baina Zornotzan bizi da, eta bertako xake elkartearen lehizatzen du, mutilen ligan.

Izatez valentziarra zara; nola iritsi zinen Zornotzara?

Iaz Deustuko unibertsitatera etorri nintzen master bat egitera, eta hortik proiektu batzuetan jarraitzeko aukera sortu zitzaidan, Larrabetzun: xakea drogamendekotasun zentroetan aplikatzeko aukera. Bertatik gertu leku bat bilatu nuen, eta Zornotza izan zen aukera egokiena.

Nola hasi zinen Zornotzako xake taldean?

Hasiera batean nik Bilboko Conteneo Haitzak taldean jokatzeko nuen, hiru edo lau urte neramatzan bertan. Baina hona etorri nintzenean bizitzera, askoz erosoa zen etxetik bi kaleta-

ra jokatzeko, astero Bilbora joatea baino.

Zer-nolako tratua ematen dizute taldekideek?

Egia esan, bikain tratatzen nauten, eta taldeko beste kide bat naiz, zalantzarik gabe. Taldekideak ezagutu nituen, eta berehala eman zidaten taldean integratzeko aukera; taldeko giroa oso ona da, aldaketa oso erraza izan zen.

Noiztik jokatzeko duzu xakean?

Berandu samar hasi nintzen. Normalean, jendea 6 edo 7 urte gaz hasten da, eta ni 14 gaz hasi nintzen. Bitxia da. Izan ere, ez zitzaidan xakea gustatzen, baina nire nebari bai. Eta nik nire neba baino hobea izan nahi nuen. Horrelaxe hasi nintzen xakean jokatzeko, nire anaiari irabazteko asmoz. Lehiatzen hasi ginenean, ordea, berak utzi egin zuen, eta nik jarraitu egin nuen.

Ez zaio lehiatzea gustatzen, eta niri asko gustatzen zait. Beraz, mundu honetan jarraitu nuen, eta oso gustura nabil.

Zaletasunagatik jokatzeko duzu?

Nire zaletasuna eta lanbidea uztartzeko zortea izan dut. Psikologoa naiz, eta terapia egiteko xakea aplikatzeko proiektu batzuetan jarduteko aukera dut. Adibidez, kognizioa, arreta, kontzentrazioa eta pentsamendua birgaitzeko aukera ematen dizu xakeak. Beraz, xakeak bizitzen laguntzen du.

Posible da xakean jokatzetik bizitzea?

Zaila da. Baina badago jendea. Munduko hamabost hoberenak, esaterako, oso erraz bizi daitezke horretatik, baina gainontzekoak nekez. Lehiaketan mundua oso gogorra da, etxetik kanpo den-

“**Jendea 6 edo 7 urte gaz hasten da xakean; ni 14 gaz hasi nintzen**”

“**Zeure burua garatzea ahalbidetzen duen jarduera da**”

bora asko igarotzen duzulako. Beraz, oso zaila da familia bat osatzea edo lan finko bat lortzea eta xakelari profesionala izatea. Hala ere, xake hezitzailearen lanari erreparatzen badiogu, bide posible gehiago daude.

Entrenatzen al da xakean?

Nik lehen entrenatzen nuen, bai. Egunean lau bat ordu sartzen nituen. Valentzian bizi nintzenean, errendimendu handiko kirol zentro batera joaten nintzen. Bertan, ikasgai batzuk kentzen zizkiguten, eta entrenamenduak jarri. Batzuek atletsimoa egiten zuten bitartean, nik xakean jokatzeko nuen. Entrenatzaileak eta lantalde bat genituen. Batez beste hiru ordu genituen egunean, bakoitzak bere kabuz egiten zituen orduak eta lehiaketetako orduak gehituta.

Nola doa taldekako Euskadiko Liga?

Oso ondo. Mailari eustea ia bermatuta dugu, eta datozen bi jardunaldietan irabazten badugu, mailaz igotzeko aukera ere izan dezakegu.

Xakean nola jokatzeko da taldekoa?

Lau jokalariz osatutako taldeak dira. Beraz, saio bakoitza lau partidaz osatzen da. Partida bakoitzeko garaipen batek puntu bat lortzen da, eta lau partiden baturak erabakitzen du garaipena norrentzat izango den. Partida berdinduz gero, puntu erdia lortzen da. Bina garaipenekin, saioa berdinduztat ematen da.

Euskadi mailan lehiatzen duen neska bakarrenetarikoa zara, ezta?

Bai. Euskadiko Ligan, nik dakidala, hiru bakarrik gara. Mundu mailan ere ez dira asko. Orain, adibidez, ideia bat egiteko, munduko nesken txapelduna 100 gizonetako onenen artean sartu da. Hori bi emakumek bakarrik lortu dute historian.

Zergatik daude hain neska gutxi xakean?

Betiko eztabaida da hori. Nik uste dut gizarteak eragin handia daukala horretan. Ez da sustatzen emakumezkoen xakea, eta horrela oso zaila da dinamikaz aldatzea. Frantzian eta Turkian, adibidez, talde bakoitzean emakumezko bat izatea nahitaezkoa da, eta horrek emakumezko gehiago animatzen ditu.

Zer esango zenieke animatzeko?

Oso mundu polita dela. Oso joko polita eta dibertigarria dela, eta bidaiatzeko eta jendea ezagutzeko aukera ematen dizula. Gainera, zeure burua garatzea ahalbidetzen duen jarduera da, gaitasun asko hobetzen dituzu, eta pertsona moduan hazten laguntzen dizu.

Profesionalerako atea den Biharko Izarrak txapelketa hasi dute 24 pilotarik

Afizionatuetako txapelketa prestigiotsuan Aitor Elordi mallabitarra da Durangaldeko ordezkari bakarra



Txapelketa astelehenean aurkeztu zuten Trabakua Behekoa jabetxean. Julen Uribe

> PILOTA Joseba Derteano Asteon hasi eta ekainera bitartean afizionatu mailako pilotaririk onenetakoak Mallabian batuko dira eguen gauero. Parte hartuko duten 24 pilotarietatik Aitor Elordi mallabitarra da Durangaldeko ordezkari bakarra.

Aurten hamabigarren aldia beteko duen txapelketa astelehenean aurkeztu zuten Trabakua Behekoa jabetxean. Azken asteetan deiak jaso eta jaso ibili dira antolatzaileak, Carlos Garcia-ren esanetan, baina denentzako tokirik ez dagoenez, urtero

legez, hautaketa bat egin behar izan dute. Bizkaiko Pilota Federazioko presidente Jose Manuel Fuentesen ustez, Biharko Izarrak dagoeneko "erabat finkatuta" dagoen txapelketa da, eta bertan parte hartu izan duten 21 pilotarik ondoren profesio-

naletarako saltoa egin dutela gogoratu zuen. Euskadiko Pilota Federazioko presidente Patxi Jauregik antolatzaileen lana eskertu zuen, besteak beste. Be-tearte enpresako eta udaleko ordezkariak ere izan ziren aurkezpenean. Bilduko Unai Uzuriaga zinegotziaren esanetan, "azken lau urteak ez dira errazak izan, baina diru-laguntzak mantentzeko ahalegina egin dugu".

Hemezortzi jardunaldi

Atzo jokatu ziren txapelketako aurreneko bi partiduak, eta ekainera bitartean eguenero -zapatu batzuetan ere bai- izango dira jardunaldiak.

Durangaldeko ordezkari bat du aurten: Iurretako pilota eskolan dabilen Aitor Elordi. Orain urte bi lau t'erdikoan parte hartu zuen, iaz binaka estreinatuz, eta aurten errepikatu egingo du. Promesarik onenak bazten dituen txapelketan "pauso bat aurrera" ematea izango du helburu 18 urteko mallabitarrrak. Gainera, etxean jokatu du: "Herritarren aurrean jokatzea pozgarria da, baina beti izaten da tentsio puntu bat, partidu ona jokatu gura delako".

Lau egunean lau partidu jokatu behar ditu Elordik

Domekara bitartean pilota maratoia izango du

Aitor Elordi kantxarrik kantxa dabil egunotan. Lau egunean lau pilota partidu jokatu behar ditu. Ez da ohikoa, eta beretzat ere lehenengo aldia izango dela adierazi du. Baina ez da kezkatzen, txapelketetan gora heltzen dabilen seinale delako.

Atzo Biharko Izarrak txapelketako estreinaldia izan zuen. Gaur, 20:00etan, Lezamako pilo-

ta txapelketako finala jokatuko du, Gorka Otaduy berriztarragaz bikotea osatuta; Laso eta Martija nafarrak izango dituzte aurkari: "Aurkariak puntan dabilen pilotariak dira, eta partidu estua izango da".

Bihar Tolosako Miguel Sorroa txapelketako finalerdia jokatuko du. Txapelketa Oier Etxebarriagaz hasi zuen, bai-

na, lehenengo partiduen ostean, eskuko mina dela-eta, Mikel Urizar markinarrak ordezkatu zuen: "Partidu onak egin ditugu, eta gustura nabil Urizarregaz". Errandonea eta Ibarrondoren aurka jokatuko dute.

Azkenik, domekan, berriro Otaduygaz bikotea osatuz, Euskal Ligako finalerdia jokatuko du Iurretako Olaburu pilotalekuan; Gasteizko Zaramaga taldeko Larrañaga eta Hernández izango dituzte kontrario. Elordi eta Otaduy iaz irabazitako txapela defendatzen dabilen aurten.



Aitor Elordi mallabitarra.

ADITUAREN TXOKOA



Koikili Lertxundi

Futbolaria eta enpresaria

Ezagutzagaz nahiko da?

Sarri entzuten dugu euskarak baduela gaingitu beharreko erronka garrantzitsu bat, hots, eskolatik atera eta normaltasunez gizarteratzearena. Esanetik ekintzara igarotzen saiatzen garenean, ordea, beste hainbat trabarekin talka egingen dugu. Hortaz, agerikoa da euskaraz bizitzeko zailtasunak ditugula. Baina zergatik?

Zergatik euskaldun izanda hainbeste arazo? Erosotasuna gure etsaia ote? Belaunaldi berriek hizkuntza ezagutzen badute, zergatik hainbesteko aldea erabilerarekin alderatuz gero? Euskaldunok benetan euskaraz bizi nahi ote dugu?

Gizarteko hainbat esparrutan euskarak antzeko arazoak dituela ikusirik, logikoa da irtenbide posibleak ere berdintsuak izatea. Eta horietako bat, dudu barik, jarrera da!

Maiz entzuten dugu fedeak norma guztiak botatzen dituela; egia esan, errezeta egokia izan daiteke. Bestela, nola azaldu hain prestatuak dauden gazteak gai ez izatea, adibidez, kirola euskaraz irakasteko? Edo gure seme alabek gaztele-raz jakin ez, eta etxean gurasoen artean gaztele-raz aritzea? Edo publikora begira lan egin, eta bezeroak gurekin euskaraz egin dezakeela jakin ez?

Eguneroko adibide hauek ikusirik, ez al genuke autokritika apur bat egin behar, eta ezagutzatik jarrera positibo batera igaro?

Jarrera baikor honek erabilerareagotzea ekarriko luke. Hainbeste maite dugun euskarak asko eskertuko digu beste ahalegin bat egitea gure harremana sendoa, osasuntsua eta normala izan dadin!

ITURRIAGA
SUKALDEAK
Gremioen koordinaketa

Trafaloxoste, 2-46220|Abadño - Tff. | Fax: 94 655 07 22 - 605 740 176

ekin ner group

ekin S. Coop.
Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)
48340 Amorebieta (Bizkaia) Spain
www.ekin.es

Produzio fabrikak BRASILEn, INDIAn eta MEXIKOn

Arriike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

23 urtez azpiko taldea sortu du Duranguesa txirrindulari elkarteak

23 urtera arteko tartean dagoen hutsunea bete gura dute talde sortu berriagaz



Markel de la Fuente, Gartzten Elejabarrieta eta Jon Munitxa talde berriaren elastikoagaz.

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Duranguesa txirrindulari elkarteak mutilen 23 urtez azpiko Eiser-Inforlur taldea sortu berri du. Adin tarte horri bideratu-tako talde eskasiaren aurrean, elkarte txirrindulariei lehiazeko aukera eskaintzea du helburu. Taldea osatzen duten hiru txirrindulariek zapatuan debutatutako dute, Zumaian.

Taldeagaz, Durangaldeko txirrindulariei, umetan hasi eta 23 urte egin arte, *etxean* ahalbidetuko diete formakuntza eta txapelketa ofizialetan lehiatzeko aukera. Iazko abenduan 7-14 urte arteko txirrindularitza eskola bateratua sortu zuten Durangoko, Elorrioko, Iurretako eta Abadiño txirrindularitza elkarteek. Proiektu komun

hori pauso garrantzitsua izan zen txirrindularitzarekiko zaletasuna umetatik indartzeko. Ondoren, gaztetxo horiek Elorrioko Gaurisa-Renault kadete mailako taldera salto egin dezakete. Gazte mailarako pausoa Duranguesako Beste Alde-La Tostadora taldeak ahalbidetzen du. Orain, gazte horiei 23 urtera arte lehiatzeko atea ireki

diete Eiser-Inforlur taldeagaz. Duranguesak elkarte egitura aprobetxatuko du talde berriari tokia egiteko. Eiser eta Inforlur enpresak, batez ere, jantzien kargu egingo dira.

Hiru txirrindulari

Aurten Beste Alde-La Tostadora taldean bigarren urtekoak diren hainbat txirrindulari dituzte, eta datorren urtean horiek 23 urtez azpikora batzea da asmoa, apurka, proiektua sendotzen joateko. Bitartean, hiru txirrindularigaz aurre egingo diete lehen denboraldiari. Hirurak harrobikoak dira. Markel de la Fuente (Elorrio, 1995) Sopelako taldean ibili zen iaz, afizionatuetako lehenengo urtean; talde hori desagertu ostean, proiektura batu da. Jon Munitxa (Abadiño, 1996) errepidean eta ziklo-krosan ibili izan da; iaz Abadiño ziklo-kros proban 23 urtez azpiko onena izan zen. Eta, azkenik, Gartzten Elejabarrieta (Abadiño, 1996); eskalataile petoa da, eta iaz Beste Alde taldeagaz Zornotzako Udaberri saria irabazi zuen gazte mailan.

Unai Uribarri mañariarra izango da taldeko zuzendaria. Euskaltel-Euskadi taldeagaz profesional izana da, orain urte bi batu zen Duranguesa txirrindulari elkartera, eta bere esperientzia baliatu gura dute.

Eiser-Inforlur taldeak bihar debutatuko du, Zumaian, Euskaldun Torneoako lehen lasterketan. Torneo horretako lasterketa guztiak lehiatuko dituzte. Belgikako eta Frantziako lasterketa batzuetan parte hartu gura dute.

Durangon jokatu dute Euskadiko errugbi selekzioek

Autonomien arteko txapelketako lehiak izango dira

> ERRUGBIA J.D.

16, 18 eta 21 urtez azpiko Euskadiko errugbi selekzioek Durangoko Arripausuetan jokatu dute domekan. Espainiako Autonomien Arteko Txapelketari dagozkien jardunaldiak izango dira jokoan. 21 urtez azpikoak Valentzia izango du aurkari,

10:30etik aurrera. Euskaldunek lehen jardunaldia izango dute. 16 urtez azpikoak 12:00etan jokatu du, eta 18 urtez azpikoak 13:30ean. Gaztela eta Leonen kontra jokatu dute biek. Euskaldunentzat bigarren jardunaldia izango da; lehenengoan Balearrak menderatu zituzten.

Esku-ahurrean ebakuntza egingo diote Ibai Zabalarari

> PILOTA Eneko Azurmendi

Orain arte eskuin eskuak zigortu du Ibai Zabala, hiru ebakuntza egin behar izan dizkiotelako esku horretan. Oraingoan, hala ere, ezker eskuan egingo diote ebakuntza, martxoaren 5ean. Kiste bat dauka esku-ahurrean, eta konponbide bakarra ope-

ratzea da. Abenduan hasi zen atzamarretan mina sentitzen: partiduak jokatu ostean handitu egiten zitzaion esku osoa. Erresonantzia egitea erabaki zuen azkenean. "Azken partiduetan mina jasanezina zen, eta erresonantzia bat egitea erabaki nuen", dio Zabalak. Proba horrek erakutsi zuen esku-ahurreko kiste horren erruz sentitzen duela mina atzamarretan. Dena ondo badoa, bi hilabete inguru beharko ditu sendatzeko.

Espainiako Duatloi Txapelketan, Fradesek brontzea

> DUATLOIA E.A. / J.D.

